

## 2023-2024ko GRAL defentsarako prozedura (Iraila)

1. **Defentsa egunak irailak 23- 24** bitartean izango dira Tribunalak zehaztuko duen egun, ordu eta leku zehatzean.
2. **Irailaren 13rako: koordinatzaileek** Tribunalak izendatuko dituzte eta Tribunalei jakinaraziko zaie dagokion ikasle zerrenda.
3. **Irailaren 9- 13 artean ikasleak matrikula egingo du** (dagoeneko egina ez badu). KONTUZ! Deialdi hau 2023/2024 ikasturteari dagokio
4. **Matrikula burutu ondoren, GAUREn GRALaren atalean, ikasleak defentsa eskaera burutu eta defentsarako deialdia aukeratu (iraila) beharko du (irailak 9 eta 13 bitartean). Izenburua aldatu** behar bada, **ikasleak** defentsa eskaera baino lehenago egin beharko du aldaketa. Titulazio eta minor aipamenak kendu titulu hasieratik.
5. **Zuzendariak** defentsa eskaerari erantzun (lanaren izenburua berrikusi) eta txostena (gure web orriko GRALaren atalean dagoena) igoko du GAUR plataforman (**irailaren 16a** baino lehen).
6. **Irailaren 16- 17** bitartean **ikasleak lana ADDI plataforman igo beharko du** (ikusi webgunean prozedura honi buruzko gida). Deialdi honetan, posterra eranskin gisa gehituko da lanaren amaieran.  

ADI! Ikasleak ezingo du lana igo, ez baditu matrikula eta defentsa eskaera egin.
7. **Tribunaleko kideek** ADDIko mezua jasoko dute, lana deskargatu eta irakurri ahal izateko.
8. **Zuzendariak** bere ikasleei tribunalari buruzko informazioa jakinaraziko die.
9. **Zuzendariek**, edo **tribunalek**, ikasleei adieraziko diete eguna, ordua eta gela.
10. **Irailak 19- 24** bitartean poster erakusketa orokor eta publikoa egingo da HEFA llan. Irailak 19an posterra Fakultatea irekita dagoen orduetan zintzilikatu ahal izango da, egun horretan zehaztuko den tokian.
11. **Irailaren 23 eta 24an** defentsak burutuko dira
12. **Zuzendariak** tribunalari helaraziko dio bere ebaluazioa.
13. **Tribunalak**, ezarritako irizpideen arabera, kalifikazio prozesua burutuko du eta GAUREn argitaratuko du.
14. Tribunaleko **idazkariak** dagokion minorreko koordinatzaileari jakinaraziko dio Ohorezko Matrikula (OM) jartzeko hautagairik ote dagoen. Hala izatekotan ikasle horren kalifikazioa OM guztiak ebatzitakoan egingo da.